



Editoriala

Eusko Legebiltzarrak kudeaketa iraunkorrean ziurtatutako radiata pinuaren zuraren erabilera sustatzeko onartu duen Legez Besteko Proposamena izan da 2008ko albiste onenetako eta itxaropengarrietako bat, basogintza sektorea eta gure herriko eta nazioarteko ekonomia astindu dituzten hainbat eta hainbat gertaera ezkorren erdian.

Argi dago Proposamenak ezin dituela konpondu epe laburrean sektoreak pairatzen dituen arazo larriak, baina baliabideen kudeaketa iraunkorrari buruzko konpromisoari eusten diogun basojabeak garen aldetik, gure atsegina azaltzeaz batera, zorionak eman behar dizkiogu, basozainek eta Euskal Herrian finkatutako basogintza sektore osoak luzaz aldarrikatu duten ekimen hau botoen bidez sustatu, sostengatu eta onartu duten hiru legebiltzarkide-taldeei (EAJ, PP eta PSE).

Gure sektorearen ikuspegitik, azkenik arbuia izan zen osotasunaren emendakinean erabilitako argudioa, egia esan, deitoragarria izan zen, batez ere, ekimen honekin bereziki basogintzako sektorea soilik aurriztuz dela behin eta berriaz aipatzean. Lehenik eta behin esan beharra dugu, EAEko basogintzako aktibitateetan %90ean radiata pinua erabiltzen dela, eta bigarrenik, Proposamenak edozein mota-tako zuraren erabilera defendatzen duela erabiltzen diren gainontzeko eraikuntzarako material kutsagarriago eta iraunkortasun gutxiagokoak diren materialen aurrean.

Edozein modutan, osagai ezkor hauek ez dute zalantzan jarri behar ekimenak merezi duen balorazio baikorra. Neurria ekintza jakinetan mamitu behar da orain ezarritako helburuak betetze aldera. Legez Besteko Proposamenak hiru puntu hauetan laburbildu ditu helburu horiek: komunikazio kanpaina baten bidez zurgintzako produktuen onurak ezagutaraztea; ziurtatutako radiata pinuaren zura erabiltzea herrilanteko kudeaketa iraunkorrean; eta horrelako jarduketan zuraren erabilera sustatzea bestelako materialen aurrean.

Proposamenaren onespak eragindako atseginaren gainetik, Euskadi Basogintza-ren ale honetan ikusiko denez, ezin argiroago dakusagu gure sektorea une kritikoa dagoela, eta egoera hori etsitzeko moduko hainbat datutan islatzen dela: prezioen eta mozketen jaitsiera, transformazio-industriaren eta honen merkatu tradizionalen krisi gero eta larriagoa, etab. Zernahi gerta ere, ez da hau erostaka hasteko unea, baizik eta berriz ere aldarrikatu behar ditugu, naturgune babestuak eta bioaniztasuna iraunaraztea, energia berriztagarria sortzea, lehengai ekologiko eta iraunkorrak ekoiztea eta gizarteari basoez gozatzeko aukera bideragarritasun ekonomikoarekin bateratu ahal eta behar dituen jarduerak honen ahalbideak.

Editorial

La aprobación por el Parlamento Vasco de una Proposición No de Ley para la promoción del uso de la madera de pino radiata certificada en gestión sostenible ha sido sin duda una de las mejores y más esperanzadoras noticias de un año 2008 que ha sido pródigo en sucesos negativos, tanto para el sector forestal como para la economía, en nuestro país y en el ámbito internacional.

Es evidente que la Proposición no puede arreglar a corto plazo ninguno de los graves problemas que afectan al sector pero, como propietarios forestales comprometidos con la gestión sostenible de nuestros recursos, no podemos sino mostrar nuestra satisfacción, felicitar y agradecer a los tres grupos parlamentarios (PNV, PP y PSE) que han promovido, sostenido y aprobado con sus votos esta iniciativa, largamente reivindicada por los silvicultores y en general por todo el sector forestal radicado en el País Vasco.

Desde la perspectiva de nuestro sector, resultó francamente lamentable la argumentación utilizada en la enmienda a la totalidad, que resultó rechazada, especialmente en sus reiteradas alusiones a que con esta iniciativa se contempla únicamente a una parte del sector forestal. Habría que recordar, en primer lugar, que el pino radiata agrupa al 90% de la actividad forestal de la CAPV, y en segundo lugar, que la Proposición apoya a la utilización de todo tipo de madera frente a otros materiales constructivos más contaminantes y menos sostenibles.

En todo caso, estos elementos minoritarios no deben empañar la valoración positiva que nos merece la iniciativa, una medida que debe materializarse en acciones concretas para cumplir sus objetivos. La Proposición No de Ley resume en tres puntos dichos objetivos: difundir con una campaña de comunicación los beneficios de los productos madereros; utilizar madera de pino radiata certificada en gestión sostenible en obra pública; y promover en la misma la utilización de madera frente a otros materiales.

La satisfacción por la aprobación de la Proposición no es óbice para que, como se refleja en los contenidos de este número de Euskadi Forestal, seamos muy conscientes del crítico momento por el que atraviesa nuestro sector, y que se refleja en datos francamente desalentadores: caída de los precios y de las cortas, crisis galopante en la industria transformadora y sus mercados tradicionales, etc. Con todo, no es momento para lamentaciones, sino para reivindicar una vez más el potencial de futuro de una actividad que puede y debe compatibilizar la preservación de espacios naturales protegidos y la biodiversidad, la generación de energía renovable, la provisión de materias primas ecológicas y sostenibles, y el disfrute del monte por el conjunto de la sociedad, con su viabilidad económica.